Gotorlekuaren iparraldean bateria osagarria eraiki zuten, "Gaztelu txikia" edo "Gotorleku txikia" deitutakoa, baina horren hondakinik ez da gelditu.

Bi gotorleku hauen zaintza Aldundiak ordaindutako pertsona baten ardurapean zegoen eta pertsona honi "gotorleku- zaintzailea" edo "talaiaria" esaten zaio.

Datu historikoen arabera, gotorleku hau eta bere kanoi-zuloak ez ziren inoiz erabili eta, gehien bat, disuasio-neurriak izan zirela pentsa dezakegu. Erabilera militarra utzi ostean, bere lekua Bizkaiko lehen itsasargiak hartu zuen. XVIII. mende bukaeran eraiki zuten, 1782. urte inguruan, eta planta lauangeluarra, hiru solairu eta ia 17 metroko altuera izan zituen. Farozaina Bilboko hiribilduarekin komunikatzen zen banderen sistema korapilatsu baten bidez.

Ondoren, denbora laburrean, soldadu britainiarrek bitan suntsitu zuten. Aurrenekoa 1812. urtean eta bigarrena 1836. urtean, karlisten mehatxuei kasurik egin gabe Legio Britainiarra agintari liberalak laguntzera joan zenean.

Itsasargia XIX. mendearen erdialdean ordezkatu zuten eta berriago bat jarri zuten finkaren erdian, gaur egun ezagutzen dugun dorre liraina. Gasteizko Francisco Antonio Echanove ingeniariaren proiektuaren arabera eraikita, 1852. urtean jarri zuten martxan.

Bere dorreak, zuri-zuria goitik behera, 12,35 metroko altuera zuen. Bere linternak oliba-olioaz zebilen lanpara bat zeukan eta Parisko Soleil, François eta Lepaute enpresaren optikoa zuen.

1879-1880 urte inguruan eraikin berria egin zuten itsasargiaren dorrearen ondoan, farozaina eta bere sendia hartzeko eta oraindik zutik dirau. Eraikin honen ondoan oraingo patina edo urputzua eraiki zen. Itsasargi hau martxan egon zen 1905. urtea arte.

Egun udalarena da.





**Informaziorako telefonoa**
Getxoko Turismo Bulegoa 94 491 08 00

**Inguruko beste gune interesgarriak**
Aixerrota
Andra Mari eliza
Galeako itsaslabarrak





KALTEA LEPOAN DAGOANAK BIZARRA
Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO
Turismoa

Playa de Ereaga, s/n
48992 Getxo (Bizkaia) Euskadi
Tel. 94 491 08 00
Fax 94 491 12 99

www.getxo.net
infoturismo@getxo.net



ekai.net
2001ED1007 BI-3062-07


# **Galeako Gotorlekua** Fuerte de La Galea



## Getxo, Abrako zelataria

Galea irtengune natural batean dago eta bertako itsaslabar ikusgarrietatik Bizkaiko eta Kantabriako kostaldeko lurralde zabalak kontrolatzen ditu. Horregatik, txoko hau berehala toki estrategiko bihurtuko zen historian, Abraren zelatari gisa. Bere talaietatik, arretaz zelatatzen zituzten itsasontzi etsaien belak eta kostaldera hurbiltzen ziren baleen arnasotsa aditzen zuten.

Galeako talaien eraikuntzari buruzko lehenengo datuak XVI. mende bukaerakoak dira, baina dirudienez Erdi Aroan zegoeneko erabili zuten kokapen hori. Ondoko mendeetan, gune honek unean uneko zaintzako hainbat eraikuntza ezagutu zituen (1639, 1703).

Galean egokitutako defentsez gainera, Getxon hainbat neurritako defentsako bestelako eraikuntzak ere egon ziren, baina egun desagertuta daude.

- Algortako Portu Zaharrean, zaharrena.
- Usategiko San Inazioko Lurmuturrean, garrantzitsuena: Banderen Gotorlekua, XVII. mende hasierakoa.
- Begoña Lurmuturrean, XVIII. mende hasierakoa.
- Arrigunagan, azkenekoa, XVIII. mendearen bukaeran eraikia, honen hondakinak zati batez ikus daitezke.

## Galeako gotorlekua

Bizkaian geratzen den XVIII. mendeko eraikuntza militarraren adibiderik onena da.

Aldundiak 1740. urtean agindu zion Jaime Sycre ingeniariari Galea gotorlekua edo Printzearen Gaztelua egitea. Horrela kostaldeko itsasbazterra gotortu nahi zuten, inguruan zebilen armada ingeles handi baten mehatxutik babesteko.

1742. urtean gotorlekuaren eraikuntzan inguruko herriek "bere borondatez" eskainitako 600 langilek parte hartu zuten.

Gaur egun duenaren antzeko planta zuen, baina itsas aldean egun dituen bi bastioiak ez zituen hasiera batean. Honakoak zituen:

- Kuartel handia erdialdean.
- Bolbora eta munizioen gordailuak.
- Soldaduentzako ohatzeak.
- Ur-hesi handia eta egurrezko zubia.
- Kanoi eta munizioen zirkulazioa errazteko zoru harriztatua.
- 20 kanoi, baina kopuru hau murrizten joan zen (12 kanoi 1765. urtean, 8 1773an eta 6 bakarrik 1827an.





## Getxo, vigía del Abra

La privilegiada situación de La Galea, un saliente natural con impresionantes acantilados desde donde se controla una amplia parcela del litoral vizcaíno y cántabro, hará de este emplazamiento un lugar estratégico desde un momento histórico muy temprano como vigía del Abra. Desde sus atalayas se vigilaba celosamente la aparición de las velas de las flotas enemigas o bien el resoplar de las ballenas que se acercaban a la costa.

Los primeros datos sobre la habilitación de atalayas en La Galea datan de finales del siglo XVI aunque todo indica que para la Edad Media ya se empleó ese emplazamiento. En los siglos posteriores la zona conocerá la existencia de distintas construcciones de vigilancia con carácter temporal (1639, 1703).

Aparte de las defensas habilitadas en La Galea en Getxo existieron además otras construcciones defensivas de diferente envergadura, y que en la actualidad se encuentran desaparecidas.

- En el Puerto viejo de Algorta, la más antigua.
- En la Punta de San Ignacio de Usategi, la más importante: Fuerte de Las Banderas, a principios del XVII.
- En Punta Begoña, a principios del XVIII.
- En Arrigunaga, la última, edificada a finales del XVIII y cuyos restos son parcialmente visibles.

## El Fuerte de La Galea

Es el mejor ejemplo de construcción militar del XVIII conservada en Bizkaia.

Conocido también como Castillo del Príncipe, la Diputación encargó en 1740 su ejecución al ingeniero Jaime Sycre, como medida para fortalecer el litoral costero ante la amenaza de una importante escuadra inglesa que merodeaba por la zona.

Participaron en la construcción, realizada en 1742, 600 trabajadores proporcionados "voluntariamente" por las poblaciones de la zona.

El Fuerte tenia una planta similar a la del actual, aunque no idéntica puesto que carecerá de los dos baluartes que hoy en día dispone por la zona de la mar. Contaba con:

- Un gran cuartel en su parte central
- Depósitos de pólvora y municiones
- Literas para los soldados
- Un gran foso y un puente de madera.
- Suelo empedrado para facilitar el tránsito de los cañones y las municiones
- 20 cañones, aunque este número se fue reduciendo (12 en 1765, 8 en 1773 y solo 6 en 1827).





Al Norte del fuerte se construyó una batería complementaria, el "Castillo menor" o "Fortín menor", y de la que no nos queda resto alguno.

La custodia de ambas fortalezas quedaba a cargo de una única persona mantenida por la Diputación, y a la cual se le denomina como "guardafortines" o "talayero".

Los datos históricos hacen suponer que este Fuerte y sus cañoneras, nunca entraron en funcionamiento y fue más bien un elemento disuasorio. Tras el abandono militar de éste, su emplazamiento será ocupado por el primer faro vizcaíno. Fue construido a finales del siglo XVIII, en torno a 1782, y tuvo una planta cuadrangular con tres pisos y una altura de casi 17 metros. El farero se comunicaba con la villa de Bilbao a través de un complicado sistema de banderas.

Posteriormente sufrió en un corto espacio de tiempo dos sucesivas destrucciones por las tropas británicas. La primera en 1812 y la segunda en 1836 cuando la Legión Británica acudió en auxilio de las autoridades liberales y en contra de la amenaza carlista.

El faro fue sustituido a mediados del XIX por otro más moderno situado en el centro de la finca y que se corresponde con la esbelta torre que actualmente conocemos. Construido bajo una traza del ingeniero gasteiztarra Francisco Antonio Echanove entró en funcionamiento en 1852.

Su torre, completamente pintada de blanco, alcanzaba una altura total de 12,35 metros. Su linterna estaba compuesta por una lámpara alimentada con aceite de oliva y que disponía de una óptica de la casa parisina Soleil, François y Lepaute.

En torno a 1879-1880 fue construido un nuevo edificio junto a la torre del faro que actualmente se conserva para albergar al farero y su familia. Junto a este edificio se construyó el actual aljibe o pozo de agua. Este faro se mantuvo en activo hasta el año 1905.

Actualmente es de propiedad municipal.





**Teléfono de información**
Oficina de Turismo de Getxo 94 491 08 00

**Otros puntos de interés**
Molino de Aixerrota
Iglesia de Andra Mari
Acantilados de Punta Galea